



EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRA 2014-2019

2020ko ebaluazioa

2021/03/16



AURKIBIDEA

SARRERA	3
JARDUERA NABARMENAK	6
1. ardatza. Herritarrentzako ZERBITZUA	7
2. ardatza. Plangintza	12
3. ardatza. Koordinazioa	17
4. ardatza. Prestakuntza	21
5. ardatza. Komunikazioa	24
ARRISKU ETA MEHATXUAK EUSKADIN	27
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	36
1. ardatza. Herritarrentzako zerbitzua	37
2. ardatza. Plangintza	41
3. ardatza. Koordinazioa	46
4. ardatza. Prestakuntza	50
5. ardatza. Komunikazioa	54



SARRERA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrak helburu nagusitzat du pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren segurtasuna bermatzea.

Helburu hori bete ahal izateko, Plan horrek baldintza egokiak sustatu eta oztopoak ezabatu behar ditu, pertsonen beren eskubide eta askatasunak bete-betean baliatu ahal izan ditzaten, eta bizikidetza baketsua, ongizatea eta gizarte kohesioa ezaugarritzat dituzten espazioetan garatu ahal izan dezaten bizitza; horretarako, ahal den neurrian, murriztu egin behar ditu herritarren eskubide eta askatasunetan, haien segurtasunean eta ondasunenean eta ondare kolektiboan eragina izan dezaketen arriskuak, izan nahita eragindakoak edo ez.

Planteatutako Segurtasun Estrategiak Europar Batasunak promulgatutakoaren printzipioak eta helburuak jaso nahi ditu, bertan konpromiso sendoa baitago askatasun, segurtasun eta justiziazko espazio bat sortze aldera aurrera egiteko, etengabe aldatzen ari den mundu honetan ditugun arrisku eta mehatxuei aurre eginez. Konpromiso hori betetzeko, hainbat erronkari heldu behar diogu, hala nola eskubideak eta askatasunak babesteari, segurtasunik ezaren kausei aurre egiteari eta prebentzioa nahiz aurrerapena lehenesteari, eta babes publikoan eginkizunen bat betetzen duten sektore guztien inplikazioa lortu behar dugu.

Hori guztia dela eta, Plana sailaren eremutik haratago doa; Gobernu Plan bat da, Eusko Jaurlaritzako arlo guztietan ez ezik, gainerako erakundeetan ere eragina duen plan gisa diseinatuta baitago. Era horretara, segurtasunerako sistema integral bat ezarri nahi da, era askotako sektoreetara hedatzen den sistema zabal eta oso gisa ulertu beharrekoa; sistema horrek barne hartzen ditu herritarren segurtasuna eta segurtasun zibila, bide segurtasuna eta beste eremu batzuetako segurtasuna, ikuskizun publikoetakoa eta jolas jardueretakoa, besteak beste, eta helburutzat du egungo zein etorkizuneko mehatxuei aurre egitea, herritarren bizitzan, segurtasunean eta ongizatean eragin zuzena dutenei, hondamendi naturalak eta gizakiak eragindakoak barne.

Segurtasun publikoko sistemaren printzipioen artean daude honako hauek: arrisku eta mehatxuak prebenitzea; herritarrak babestea, haien beharrak ezagututa eta zerbitzu publikoak behar horietara egokituta; arazoak hauteman eta identifikatzea; erantzuna prestatzea, eta emaitzak ebaluatzea. Horretarako, ezinbestekoa da erresilientzia indartzea, hau da, sistema batek eta horren osagaiek duten gaitasuna egokiro eta eraginkortasunez aurrea hartzeko hondamendi, krisi edo bestelako gertaera baten ondorioei, baita horiek arintzeko, horietara moldatzeko edo horietatik suspertzeko ere. Erresilientzia gaitasuna gizarteko maila eta sektore guztietan garatu behar da erakundeetan.

Sistemen ikuspegia hartzea eta dimentsio anitzeko soluzioak identifikatzea funtsezko elementuak dira erresilientzia garatzeko. Planak printzipio estrategiko gisa sartu du erresilientzia, erakundeak eta herritarrak edozein gertaera kaltegarriarako prestatzeko. Ikuspegi horren ondorioz, Segurtasun Planak etengabeko hobekuntza izan du azken urteetako historian eta bilakaeran, eta 2014an ezarritako helburuetako asko bete dira. Segurtasun sistema integrala da Planeko segurtasun helburuak betetzeko eta erlazionatuta dauden sail eta erakunde guztiak lerrokatzeko oinarria. Era berean, segurtasun sistema integralak hiru zutabe estrategikotan oinarritzen den segurtasun politika sortzen du:

1. Herritarrenganako hurbiltasun handiagoa sustatzea, horiek baitira sistema osoaren ardatza.
2. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak modu eraginkor eta efizienteagoan erabiltzea.
3. Lankidetzaren handiagoa izatea eragile sozial, instituzional eta polizial guztien artean.

Ondorioz, hiru zutabe horiek dira Planean zehaztu ziren ardatzen eta ildo estrategikoen funtsa. Ondoko taulan ikus daitezke ardatz eta lerro horiek:

ARDATZAK	ILDO ESTRATEGIKOAK
1. ARDATZA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA	1.1 Ertzaintzan gizarte ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 1.2 Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 1.3 Herritarrei emandako arreta eta haien establezimenduen segurtasun baldintzak hobetzea 1.4 Ikuskizun eta jolas jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea 1.5 Indarkeria, arrazismo espresioak, xenofobia eta, oro har, intolerantzia jarrerak desagerraraztea kirolean 1.6 Lankidetza eta koordinazioa kanpo agenteekin 1.7 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa 1.8 Azpiegitura kritikoen eta oinarrizko zerbitzuen babesa bermatzea 1.9 Administrazio elektronikoa
2. ARDATZA PLANGINTZA	2.1 Ertzaintzan gizarte ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik 2.2 Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 2.3 Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetza txertatzea, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 2.4 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne kohesioa 2.5 Babes Zibil eta Larrialdien arloko plangintza eguneratzea 2.6 Euskadiko Joko Sistemaren Ikuspegi Integrala 2.7 Datuak eta informazioa jasotzea eta trukitzea 2.8 Euskadiko Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa 2.9 Ertzaintzaren baliabide materialak modernizatzea 2.10 Alerta Sistema eta herritarren autobabesa
3. ARDATZA KOORDINAZIOA	3.1 Prebentzio aktiboan oinarritutako eta inteligentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 3.2 Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetza txertatzea, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko 3.3 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne kohesioa 3.4 Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuen eta sistema ahalbidetzen duten erreminten koordinazioa hobetzea 3.5 Euskal Polizia Koordinatzeko Sistema bat ezartzea (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) 3.6 Osagarritasuna beste administrazio batzuekin 3.7 Ekinbide – Segurtasun Sistema Hobetzeko Herritarren Ekimenetarako Bulegoa antolatzea eta kudeatzea 3.8 Segurtasun Publikoaren Estatistika Organo Espezifikoa kudeatzea 3.9 Hainbat erakundetan diharduten gertakari konplexuetan espezializatutako taldeen jarduteko eta esku hartzeko prozedurak homogeneizatzea
4. ARDATZA PRESTAKUNTZA	4.1 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne kohesioa 4.2 Larrialdietako eta meteorologiako arloan prestakuntza herritarrentzat eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren zerbitzuetarako 4.3 Barne eta kanpo prestakuntza jokoaren eta ikuskizunen arloan 4.4 Hezkuntza eta prestakuntza
5. ARDATZA KOMUNIKAZIOA	5.1 Ertzaintzan gizarte ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengatik eta eragingarritasunarengatik



ARDATZAK

ILDO ESTRATEGIKOAK

- 5.2 Ertzaintzaren kudeaketara gaineratzea etengabeko hobekuntza eta besteekin lankidetzatxertatzea, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko
- 5.3 Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne kohesioa
- 5.4 Herritarrekin komunikatzeko sistema eta prozedurak eguneratzea
- 5.5 Salaketak eta baimenak izapidetzea
- 5.6 Herritarrentzako informazioa

1. IRUDIA: EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRAREN ARDATZAK ETA ILDO ESTRATEGIKOAK

Sei urte baino gehiago igaro dira 2014-2019 aldirako Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra egin zenetik, eta XI. Legegintzaldia hasi da, zeinak segurtasun arloko helburu estrategiko berriak dituen gobernu programa bat aurkeztu baitu. Hori dela eta, beharrezkotzat jo da Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren jardunaren azken urteko jarraipena eta ebaluazioa egitea. Azterketak 2020an zehar garatutako ekintzak eta betetako helburuak hartzen ditu barne, eta, beraz, Planaren azken ebaluazioa da.



JARDUERA NABARMENAK

Segurtasun Saila osatzen duten zuzendaritzek aipatutako Planean jasota dauden zutabe estrategikoen arabera lan egin dute aztergai den aldian. Planaren garapena eta ekintzak 5 ardatzen inguruan egituratu dira. Jarraian, adierazita datoz oinarri estrategikoak eta ardatzak:

OINARRI ESTRATEGIKOAK

1. OINARRIA

Herritarrenganako hurbiltasun handiagoa sustatzea, horiek baitira sistema osoaren ardatza.

2. OINARRIA

Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak modu eraginkor eta efizienteagoan erabiltzea.

3. OINARRIA

Lankidetza handiagoa izatea eragile sozial, instituzional eta polizial guztien artean.

ARDATZAK

HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

PLANGINTZA

KOORDINAZIOA

PRESTAKUNTZA

KOMUNIKAZIOA

Zuzendaritzan lan dinamika bost ardatzetan oinarrituta egituratu da. Jarraian, egindako lana azalduko da.



1. ARDATZA. HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA



ERTZAINTZAREN ZUZENDARITZA

Ertzaintzak agerian uzten du zerbitzatzen duen gizartearekiko duen konpromisoa, eta hertsiki lan egiten du harekin, segurtasuneko nahiz asistentziazko zerbitzuak gizarteko errealitatera egokituz, efizientzia maila handiarekin. Horretarako, arreta berezia eskainiko dio baliabide materialak bilakaera teknologikora egokitzeari.

COVID-19aren pandemiak eragindako muturreko larrialdi egoerak funtsezko aldaketa ekarri du poliziaren jardunean. Segurtasun publikoa kudeatzeko eta mantentzeko gain, Ertzaintzak asistentziazko lanak eta hainbat erakunderekiko lankidetzak lanak egin ditu. Pandemiaren eraginaren ondorioz, delituak % 19 inguru murriztu dira 2019. urtearekin alderatuta. Lehenengo alarma egoeran gauzatutako zaintza lanetan 67.095 salaketa jarri dira, hau da, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa urratzeagatik jarritako salaketa guztien % 94,21.

Martxoa eta maiatza bitartean, Ertzaintzak Osakidetzarekin lan egin du, eta estaldura eman die etxeko etxeko arreta emateko edo koronabirusa detektatzeko probak egiteko batetik bestera mugitu behar izan duten osasun langileei. 40 ertzainek baino gehiagok bete dute eginkizun hori, eta behar bezala egokitutako 12 furgoneta erabili dituzte. Era berean, NEBK unitateak (Defentsa Nuklearra, Erradiologikoa, Biologikoa eta Kimikoa) 92 deskontaminazio zerbitzu egin ditu erabilera publikoko lekuetan, hala nola ospitaleetan, ertzain etxeetan, epaitegietan, adingabeen zentroetan, tren geltokietan eta autobus terminaleetan, lehen mailako osasun zentroetan eta gurtza lekuetan. Ertzaintzak, udaltzaingoekin eta irabazi asmorik gabeko elkarteekin batera, etxerik gabeko pertsonen ostatu emateko jardueretan ere parte hartzen du, baita komunitate musulmanarekiko eta hainbat ijito elkartetako arduradunekiko interlokuzio lanetan ere. Ertzaintzak araudia monitorizatu du, eta aholkularitza eman die Ertzaintzaren Burutzari, EAZOK agente bakarrari eta Segurtasun Saileko arduradun politikoei. Horren osagarri, egunero dokumentu bat egin du, unean uneko egoerari buruz eta egoeraren aurretiko interpretazioarekin. Horrez gainera, "*Osasun alarmari buruzko irizpideak Ertzaintzan eta udaltzaingoetan*" izeneko dokumentua ere sortu du, hau da, gida praktikoa bat, Euskadiko herritarrek eta agenteek eskuragarri dutena, araudia modu homogeneoan bete dadin.

2020an Ertzaintzak babestutako emakumeen artean hildakorik erregistratu ez den arren, tamalez hiru emakume hil zituzte. Kalteberatasun eta arrisku egoera larriagotu egin zen biktimenez, alarma egoeran dekratatutako etxeko konfinamenduaren ondorioz. Ertzaintzak jarraipen eta babes neurriak indartu zituen, mugikortasunari ezarritako murrizketak zirela-eta biktimek salaketarik jarriko ez zutela aurreikusita. Aurreikuspena berretsi egin da, eta nabarmen murriztu dira EI/GI salaketak, mugimenduak gehien murriztu diren hilabeteetan, nahiz eta urtearen amaieran ez den ia aldaketarik erregistratu, 2019. urtearekin alderatuta. Ertzaintzak EBA (Etxekoen eta Emakumeen Babesa) proiektuan aurrera egiten jarraitu du; horretarako, kudeaketa partekatuko sistema digital bat sustatu da, Ertzaintzak eta udaltzaingoek EI/EGren espediente guztiak partekatu ditzaten, eta sistema hori erabilgarri egongo da 2021eko bigarren seihilekoan. Ezarritako protokoloak eta neurriak eta, azken batean, genero indarkeriarekin lotutako kudeaketaren kalitateak badute beren isla; izan ere, Ertzaintzak babestutako biktimek balorazio bikaina eman diote azken urteotan egindako lanari, hainbeste, ezen Gogobetetze Globalaren Indizean (Kalitatea Kudeatzeko Sistema) 10etik 9 puntu eman baitzikiote.



Urrian urtebete bete zen Bilboko ertzain etxean atxilotutako pertsonen kudeaketa zentralizatua egiten hasi zenetik. Denboraldi horretan 1.973 atxiloteta egin dira. Kudeaketa horri egindako ebaluazioaren arabera, egiaztatu da baliabideen eraginkortasuna hobetzen duela eta epaileekiko koordinazioa hobetzen laguntzen duela. Era berean, etika publikoa eta giza eskubideekiko errespetua sustatzen jarraitu da, eta horretarako, atxilotutako pertsonen bizia eta segurtasun fisiko eta psikikoa zaindu dira, haien eskubideak, ohorea eta duintasuna errespetatuz, eta aldi berean, atxilotetan parte hartzen duten agenteen segurtasun fisiko, psikiko eta juridikoa bermatzen lagundu da.

Halaber, Ertzaintzak parte hartu zuen futboleko Eurokopa 2020 ekitaldiaren antolakuntzako eta segurtasuneko prestaketetan, Bilbo baitzen ekitaldi horren egoitzetako bat. Hala ere, osasun krisialdiaren ondorioz, bertan behera geratu zen kirol ekitaldi hori, eta 2021. urtera atzeratu da; gauza bera gertatu da udan urtero egiten diren nazioarteko musika jaialdiekin. Ekitaldi horietako batzuk osasun larrialdiaren ondorioz ezarritako salbuespenezko neurriak betez egin dira. Udaltzaingoekin lankidetzan, 2020ko Espainiako Itzulia Euskaditik igarotzen zenerako segurtasun eta laguntza azpiegitura ezarri zen, hain zuzen ere urriaren 20an eta 27an egin ziren probetarako.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

Herritarrentzako Zerbitzua izeneko ardatzaren baitan, LAEMZek funtsezko eginkizuna du, “Herritarrei emandako arreta eta haien establezimenduen segurtasun baldintzak hobetzea” lerro estrategikoa garatzeari dagokionez. Ildo horretan, nabarmendu beharra dago 112 – SOS DEIAK zerbitzuaren bidezko harreman zuzena herritarrekin; zerbitzu horrek 765.984 dei jaso eta 205.045 gertakari kudeatu zituen 2020an. Ekitaldi horretan kudeatutako gertakari gehienek zerikusia izan zuten larrialdi medikoekin (% 25,53), bide publikoko arriskuen abisuekin (% 17,03), herritarren segurtasunarekin (% 16,33), pertsonen istripuekin (% 13,25) eta trafikoko istripuekin (% 8,51).

2019ko datuekin alderatuta orokorrean 22.156 gertakari gutxiago artatu badira ere, pandemiaren eta konfinamendu gogorraren ondorioz, martxoan nabarmen egin zuten gora 112 telefonoan jasotako deiek, 2019an erregistratutako datuekin alderatuta (11.526 dei gehiago); seguru asko, herritarrek pandemiari buruzko informazioa biltzeko beharra zutelako gertatu zen hori. Gero, apirilean, beherakada deigarria izan zen (11.526 dei gutxiago).

2020. urtean, Abisuak nahieran zerbitzuaren erabiltzaileak 2.054 izatera heldu ziren. Era berean, aldi horretan SOS Deiak App-ak 33.820 deskarga aktibo erregistratu zituen, eta, horren ondorioz, 269 dei kudeatu ziren; eCall sistemak 345 larrialdi dei sortu zituen, eta horietako 31 izan ziren gertakari errealengatik.

2020an, Alderantzizko 112ari lotutako SOS Deiak App-aren funtzionalitate berria aurkeztu zen. Alerta goiztiarreko sistema bat da, aukera ematen duena arrisku egoeren abisu zehatzak bidaltzeko arrisku horiek ageri diren eremu edo leku zehatzetara (aldez aurretik geolokalizaziora sartzeko baimena emanda).

Euskadiko herritarren autobabesa sustatzeari dagokionez, jada aipatu diren Alderantzizko 112 eta Abisuak nahieran zerbitzuez gain, herritarrei informazioa ematen jarraitu da, arrisku naturalei edo teknologikoei buruzko abisu eta aholkuen bidez (153 egunetan bidali dira abisuak, alertak eta alarmak; 561.038 mezu

elektroniko igorri dira eguraldi txarragatik edo uraldiengatik; 94.302 SMS bidali dira eguraldi txarragatik edo uraldiengatik).

Aurrekoaz gain, LAEMZetik autobabesarekin lotutako jardueretan lanean jarraitu dute 2020an:

- Euskadiko administrazioan 128 teknikari gehiago akreditatu ziren, eta horiek Autobabeserako Euskal Arauari lotutako establezimenduetarako autobabes planak egingo dituzte. Dagoeneko 2.208 dira guztira.
- Autobabeserako Euskal Arauaren menpeko 1.021 establezimendutako larrialdiak kudeatzeko datu garrantzitsuak inskribatu edo eguneratu ziren.



TRAFIKO ZUZENDARITZA

Osasun krisi globalak zuzen-zuzenean eragin dio mugikortasunari 2020an zehar. Pandemiari aurre egiteko, bi alarma egoera dekretatu dira, bata martxoan, hiru hilabetetik gorako konfinamendu zorrotza ezarri zuena, eta bestea urrian, udalerrri eta lurraldeen arteko mugikortasuna murriztu zuena; egoera horrek aldatu egin du Euskadiko trafikoaren ohiko jokamoldea.

Mugikortasunean ez ezik, birusa geldiarazteko hartutako neurriek eragin zuzena izan dute, halaber, istripu tasan, 2020an % 28ko beherakada izan baitu; hildakoen kopurua % 25,5 txikitu da, eta larri zauritutakoena, berriz, % 23,4.

Mugikortasunari dagokionez, beherakadarik handiena apirilean gertatu zen, etxeko konfinamendua eta oinarritzkoa ez den ekonomiaren hibernazio dekretua agindu zituztenean. Une horretan, mugikortasuna % 71 murriztu zen, batez beste, hiriburueterako sarbideetan, eta egun zehatz batzuetan beherakada % 90ekoa izatera ere heldu zen.

Lehenengo alarma egoera indarrean egon zen hilabeteetan, ibilbide luzeko trafikoa ere murriztu zen (apirilean % 69ko beherakada izatera helduta). Udan, Espainia eta Marokoren arteko lehorreko muga itxi zenez eta Gibraltargo Itsasartea Pasatzeko Operazioa bertan behera geratu zenez, Europako iparraldetik Afrikako iparraldera joateko Euskadi urtero zeharkatzen duen nazioarteko trafikoa nabarmen murriztu zen. Irailean hasi zen antzematen trafikoa bere onera itzultzari ari zela, baina alarma egoera berria eta beste mugikortasun murrizketa batzuk indarrean jarri ondoren, behera egin zuen berriro.

2020. urtean, Ertzaintzak 6.406 trafiko istripu erregistratu ditu Euskadiko errepideetan. Horietatik 2.083 istriputan biktimak egon dira, eta 4.323 istriputan, berriz, ez. Istripu horietan tartean izan ziren 11.226 ibilgailu eta 11.857 pertsona. Pertsona horietatik 34 hil ziren; 275 larri zaurituta geratu ziren, eta 2.462, arin zaurituta.

2014ko datuak alde batera utzita, azken urteetan, 2017. urtera arte, beheranzko joera izan du trafiko istripuetan hildakoen kopuruaren bilakaerak, hurrengo taulan (Trafiko istripuak 2020an) ikusten denez. 2015. urtetik aurrera, hildakoen kopurua egonkortu egin da, 40tik 50era bitarteko tartean.

Biktimak eragin dituzten istripuen seriea da estatistikoki datu fidagarriena bideko istripu tasarekin lotutako serie guztien artean, eta datu horrek, hain zuzen, beheranzko joera du 2003az geroztik, baina, oso atalase baxura heldu denez, gero eta zailagoa da horri eustea, 2015-2020 urteetan ikusten den moduan, horietan datua egonkortu dela antzematen baita.

Innovabide Sarea 2017an jarri zen abian, “in itinere” (lanerako joan-etorrietan) edo “in mision” (lanean ibilgailua gidatzen duten bitartean) gertatzen diren istripuen ondoriozko hildakoen eta larri zauritutakoen kopurua % 40 murrizteko helburuarekin. 2020. urtearen amaieran, bide segurtasunarekin konprometituta dauden sektore askotako 43 enpresa atxiki zaizkio sare horri, kudeaketa-planen bidez.

Innovabide Sareak 2020ko azaroaren 26an egin zuen enpresen II. Topaketa, eta, bertan, enpresetako arduradunek errepideetako istripu kopurua murrizteko eta mugikortasun seguruaren aldeko kontzientzia sustatzeko moduei buruzko esperientziak eta ezagutzak elkartrukatu zituzten. Topaketa modu birtualean egin zen, Covid-19aren ondoriozko osasun egoeragatik.

Halaber, abenduaren 15ean, ekitaldi erdi-presentzial batean, Josu Zubiaga Segurtasuneko sailburuordeak Bigarren Innovabide Aintzatespena eman zion Ingeteam enpresari, bide segurtasunaren kudeaketaren arloko praktika onengatik. Era berean, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak (KONFEKOOP) Aipamen berezia jaso zuen, eta Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariak eman zion.

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak “GIDADI 2020” azterlana egin du Trafiko Zuzendaritzarentzat. Ekimen horrek 65 urtetik gorako pertsonen bide segurtasunaren arloan antzemandako beharrak aztertzen ditu. Ikerketa lan horren helburuak izan dira adinekoen bide segurtasunaren arloan dituzten beharrak nola hautematen dituzten aztertea eta hobekuntza ekintzak proposatzea, kolektibo horretako trafiko istripuak murrizteko. Azterlanean, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 65 urtetik gorako 80 gidarik parte hartu zuten, eta banakako elkarrizketak egin zitzaizkien. Beste 500 bide erabiltzailereri ere egin zaizkie elkarrizketak.

Amaitzeko, Trafiko Zuzendaritzak trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloan zehatzeko eskumena bere gain hartu du, Altaga, Gautegiz Arteaga eta Artzentales udalerrietako hiri barruko bideetan egindako arau hausteei dagokienez.



JOKO ETA IKUSKIZUNETAKO ZUZENDARITZA

Jarduera sozialak murrizteko lehen erabakiak martxoan hartu zirenez, joko lokalek zein jolas jardueretako eta ikuskizun publikoetako lokalek hauek guztiak jasan dituzte: aldi baterako itxierak, edukiera murrizketak, bertaratutakoen arteko distantzia neurriak eta COVID-19ari aurre egitearekin lotura zuzena duten beste neurri batzuk.

Ez dago 2020ko datuak aurreko aldietakoekin konparatzerik, aurten asko murriztu baita jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak egiteko aukera eta joko lokalen funtzionamendua ere askoz txikiagoa izan baita. Hori dela eta, 2019an 661 jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduera izan ziren, eta 2020an, berriz, 82. Zezen jarduerari dagokienez (zezenketa orokorrak, usadiozko zezenketak, beste zezenketa batzuk, plazak berriro irekitzea, birsalmentarako baimena), murrizketa nabarmena izan da; izan ere, 2019an 180 izan ziren, eta 2020an, 18. Su artifizialen baimenak ere gutxiago izan dira, 2019an 84 izan baitziren, eta 2020an, 1. Makinen homologazioetan aldea ez da hain handia izan; izan ere, guztiz konfinatuta geunden garaian izan ezik, fabrikatzaileek homologazio horiek eskatzen jarraitu dute. Joko eta ikuskizunen tasa administratiboak ere txikiagoak izan dira, joko eta ikuskizun gutxiago egon direlako.



Euskadiko apustu enpresa homologatuen diru bilketa gisa erregistratutako zenbatekoak -% 23,7 txikitu dira, 2019ko urteko kopuruen aldean, aurretik aipatu dugun arrazoi beragatik eta apustuak egiteko aukera ematen duten ikuskizunak ere gutxiago izan direlako. Apustu lokaletan bertan beherakada -% 51,63koa izan da; gaitutako aretoetan, -% 39,93koa; korrerretan -% 38,75koa; ostalaritzan, -% 32,51koa, eta online kanalean, -% 0,41koa. Azken horrek izan du beherakada txikiena.

Zehapen lanari dagokionez, zehapenak nabarmen ugaritu dira; izan ere, “botiloia” edo kale edana egiteagatik jarritako zehapenen kopurua handia izan da, 174 espedientekoa. Zehapen horiek Agindu hau urratzeagatik jarri dira: 2020ko ekainaren 18ko Agindua, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gaingitu eta gero. Eta Agindu horren eranskinean hurrenez hurren egindako aldaketak ez betetzeagatik: Osasuneko sailburuaren uztailaren 15eko Agindua, kalean taldean edatea osasungaitzasun egoeratzat hartuko dela ezartzen duena; 2020ko uztailaren 28ko Agindua, eta 2020ko abuztuaren 19ko Agindua.



2. ARDATZA. PLANGINTZA



ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA

Ertzaintzak sendo uztartu nahi ditu polizia zerbitzuak, alde batetik, eta eskubide berdinak dituzten gizonezkoek eta emakumezkoek osatutako gizarte ireki, plural eta elebiduna, bestetik. Horretarako, Ertzaintzak bere egiten du Europako Kontseiluak Poliziaren Etikaren Kode Europarrari buruz emandako gomendioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari aplikagarri zaion ordenamenduaren parte gisa. Ertzaintzaren Estrategia osatzen duten elementuak helburu horrekin lerrokaturik daude, Ertzaintzari bere Eredua bete-betean garatzen laguntzeko.

Berrikuntzaren arloan, Ertzaintzak hainbat lan paketeren buru izaten jarraitzen du Europako H2020 programaren baitako proiektuetan, hala nola INGENIUS eta PREVISION izenekoetan; lan horien helburuak izan dira hondamendi mota guztiei ematen zaien erantzuna hobetzea, eta informazioa eta datuen fluxua kudeatzea, (ziber)krimenaren eta terrorismoaren aurka borrokatzeko. Gainera, Ertzaintzak ISF Police programaren barruan lortu duen lehen proiektuari ekin zaio, MASC-CBNR izenekoari, zeinak helburutzat baitu eraso kimiko, biologiko, erradiologiko eta nuklearrak prebenitzea eta neutralizatzea.

Otsailaren 21ean, Ertzaintzaren Berrikuntzaren II. Jardunaldia egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian, eta beste 5 proiektutarako finantzaketa lortu dela iragarri zen. Proiektu horietako hiru abian jarri dira urtean zehar: ENGAGE, komunitateek hondamendiei erantzuteko duten gaitasuna hobetzera bideratua; DARLENE, delitu jarduerak iragartzeko, aurreikusteko eta prebenitzeko datu bolumen handiak sailkatzea ahalbidetuko duen segurtasun soluzio proaktiboa ematera bideratua; eta S4AllCities, hirietako azpiegiturak, zerbitzuak, IKT sistemak eta gauzen Internet erresilienteagoak izateko aukera emango duena, segurtasunean interesa dutenen artean informazioa eta inteligentzia trukatzeko sustatuz. Era berean, finantzaketa lortu zen IMPULSE proiekturako ere. Proiektu hori 2021eko otsailean hasiko da, eta bi teknologia motatan ardaztuta dago: adimen artifiziala eta Blockchain, egungo teknologia disruptiboenetako bi, eta etorkizun handienekoak; eta aldi berean, teknologia horiek identitate digitalean sortzen duten ekarpena eta eragina aztertuko du proiektu horrek.

Era berean, 2020an zehar, Ertzaintzak mugikortasuneko proiektu pilotu bat garatu du Hernaniko ertzain etxean eta Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Unitatean, herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Osasun krisiak sortutako egoerak eragina izan du Ertzaintzaren banakako eta taldeko lanarekiko eta agenteekiko aitorpenean. Izan ere, programatutako ekitaldi batzuk ezin izan dira gauzatu, hala nola lehendakariak lanean hildako ertzainei egiten dien omenaldia eta egindako lan onagatik nabarmendu diren ertzainei dominak banatzeko ekitaldia. Horren ordeztu, aintzatespena adierazteko adierazpen instituzionala egin zen Hemen Gaude espazioan. Era berean, erretiratutako agenteei eta hildako ertzainen familiei plaka ikurrak emateko ekitaldia ere ez zen egin.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarentzat, lehentasunezkoa da sor daitezkeen arriskuei erantzuteko plangintza egokia ezartzea. Azken urteetako lan ildotik jarraituz, 2020an zehar hainbat esku hartze gauzatu dira:

- Babes Zibileko Kontseilu Nazionaleko Batzorde Iraunkorrak aldeko txostena eman zien Aranako eta San Martin de Zarko urmaelen larrialdi planei (biak Trebiñun daude).
- Batzordeak Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) menpe dagoen Euskadiko Larrialdi Aeronautikoen Plan Bereziaren aldeko txostena eman zuen. Plan horren helburua da administrazio eskumendunek modu integralean kudeatu ahal izatea hegazkinen aireko istripuen, instalazio aeronautikoetako istripuen, hegazkintza zibileko istripuen eta bestelako onoriozko larrialdiak, bai EAEn gertatzen direnak, baita hortik kanpo gertatzen direnak ere, baldin eta hegaldi horien jatorria, eskala edo helmuga Euskadiko aireporturen bat baldin bada. Plan horrek gertakariaren irtenbide operatiboari heltzen dio, baina, horrez gainera, biktimei eta haien senideei arreta psikosoziala ematen die, eta horretan sakontzen du, "Harremanetarako Pertsona" (HaPe) izenekoaren bidez.
- Istripu larrien araubidearen menpeko establezimenduei (SEVESO) dagokienez,
 - Oniritzia eman zitzaion enpresa hauetako Kanpoko Larrialdi Planei: Electroquímica de Hernani SA eta Terminales Portuarios SL (TEPSA). Azken hori Zierbenan dago, Santurtzi, Zierbena eta Bilboko Portu Autonomoaren eremuko industriagunearen barruan.
 - Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak enpresa hauetako Kanpoko Larrialdi Planen aldeko txostena eman zuen: Bizkaian, BEFESA ZINC OXIDO SAU (Amorebietako zentroa), BEFESA ZINC OXIDO SAU (Sondikako zentroa), Barakaldoko BILBAINA DE ALQUITRANES SA eta Santurtziko Compañía Logística de Hidrocarburos, S.A. (CLH), El Caleron kokatua, Santurtzi, Zierbena eta Bilboko Portu Autonomoaren eremuko industriagunearen barruan, baita Portu horretako 4. sektoreari dagokion aldaketa ere.
- Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman zuen, Bizkaiko Etxebarri eta Ermua udalerrietako Udal Larrialdi Planen berrikusketa eta eguneraketari begira. Horiek horrela, udal horiek, dagoeneko, dokumentuetan jasota dituzte arriskuei eta kasu bakoitzean erabilgarri dauden baliabideei buruzko jardura prozedura eguneratuak.

LAEMZek, aurreko urteetan bezala, Europako hainbat proiektutan parte hartzen jarraitzen du: "end user" (azken erabiltzaile) moduan kolaboratuz PEMEA proiektuan (PAN-EUROPEAN MOBILE EMERGENCY APP), zeinaren helburua baita 112 SOSDeiak APP-a Europako beste APP batzuekin bateragarria izan dadin lortzea. Proba erreal batzuk egin dira, eta ondo atera dira. Euskalmet markaren bitartez, LAEMZek kolaboratzaile gisa parte hartzen du URBAN KLIMA 2050 proiektuan. Neurketa, iragarpen eta alerta sistemetan eta tresnetan hobekuntzak lortzeko helburua du proiektu horrek. Era berean, LAEMZek "PPRD SOUTH III" ("Prevention, Preparedness and Response to natural and made-made Disasters in Middle East and North Africa Partnership Countries, Phase III") proiektuan parte hartzen jarraitzen du. Proiektu hori Ekialde Hurbileko eta Afrikako Iparraldeko herrietan Babes Zibilaren arloko eskumena daukaten organismoei bideratuta dago, horiek jasotzen baitute prestakuntza prebentzioari, autobabesari eta kaltetutako herritarrekiko komunikazioari buruz.





Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako 2015-2020 Plan Estrategikoa amaituta, plana ebaluatzeko ordua iritsi da, ikusteko zer mailataraino bete diren ardatz estrategikoetako helburuak eta ekintzak. 2020an, Trafiko Zuzendaritza elkarlan estuan aritu da hainbat kolektiborekin Bide Segurtasuneko 2021-2025 Plan Estrategiko berriaren prestatze lanetan. Aurreikuspenen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2021eko lehen hiruhilekoan onartuko du plan berria.

Eusko Jaurlaritzaren Bide Segurtasunerako 2021-2025 Planak bere egiten ditu Nazio Batuen Batzar Nagusiak ezarri eta Euskadi Basque Country 2030 Agendak jaso dituen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). Plana bat dator 2020ko otsaileko Stockholmeko Deklarazioak datorren hamarkadarako jaso zituen konpromisoekin. Esparru akordio bat da, bide segurtasuna hartzen duena erronka globalizat, ahalik eta gehien murrizteko trafiko istripuetan hildakoak eta larri zauritutakoak, sistema seguru ikuspegi batetik.

Planak dio beharrezkoa dela akordioak egitea sailen artean, erakundeen artean, publiko-pribatuak, Zero Biktima Ikuspegia ardatz harturik. Planari esker, etekinik handiena atera dakieke alor honetako agenteen ezagutzari, esperientziari, eskumenei eta gaitasunei, bakoitzak dagokion rola bere gain harturik. Alderdi ugari iritzi eta gogoeten bidez egin den plana: besteak beste, biktimak, Bide Segurtasuneko Fiskaltza, Ertzaintza (Trafikoko Lurralde Unitateen eta Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren bidez), Gazteria eta Berdintasun zuzendaritzak, UPV/EHU. Den-denak bide segurtasunarekin konprometituak.

Eusko Jaurlaritzak datozen urteetarako ezarri duen Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako Estrategia berriaren Egitekoa da euskal bide sarearen erabiltzaileen ongizatea eta segurtasuna bermatzea, bide segurtasuna, trafikoaren arintasuna eta mugikortasun seguru eta jasangarria sustatuta, oinarri harturik prebentzioa, koordinazioa eta erakundeen nahiz herritarren erantzunkidetasuna.

Estrategiaren Ikuspegia da trafiko istripuen tasa murriztea, Zero Biktima Ikuspegitik, eta Europako erreferente gisa kokatzea Euskadi bide segurtasunaren eta trafiko kudeaketaren alorrean, 2030. urterako betez, 2020ari dagokionez, hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua % 50 murrizteko helburu orokorrak.

Hurbiltasuna, konfiantza, konpromisoa, lidergoa eta taldea, bilakaera, gardentasuna eta gobernu ona, eta zerbitzu bokazioa dira datozen urteetarako Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoaren oinarrian dauden printzipioak.

Bestetik, 2020an, honako ikerketa lan hauek egin dira trafiko eta bide segurtasunaren alorrean:

- **TRAFIKO AZTERKETAK:** Bide segurtasuneko 10 txosten egin dira: Bazkardo, Atauri, La Avanzada, Berantevilla, Etxebarri, Soralue, Gordexola, Orozko, Segura eta Trabakua.
- **GARRAIO BEREZIAK:** Tresna bat sortzen ari da garraio berezien ibilbideak kalkulatzeko (neurrien eta pisuaren arabera), baimentzen diren ibilbideak kontrolatu eta haien jarraipena egiteko, eta sortzen den informazio guztia ustiatzeko, erabaki hobeak hartu ahal izateko garraio horien kudeaketan.
- **KUDEAKETA TRESNAK:** Hobetu egin dira GeoTraffic aplikazioaren prestazioak, eginkizun duena trafikoaren egoera monitorizatzea eta GPS datuetatik abiatuta txosten historikoak egitea.
- **INTENTSITATEAK KALKULATZEKO TRESNA:** Hobetu egin dira intentsitateak kalkulatzeko tresnaren kurba-patroiak (aurreko urteetan garatu zen tresna), kalkuluan erabiltzen den datu base historikoa handituta.
- **BIDE SEGURTASUN AZTERKETETARAKO ANALISI TRESNA:** Road Safety izeneko tresna garatu da, istripuetan eragiten duten zioen eta faktoreen (abiadura, bereziki) azterketan erabiltzen dena, kalitate handiagoko bide segurtasun azterketak egiteko.

- **TRAFIKO ETA BIDEO SISTEMA BERRITZEA:** Trafiko eta bideo sistema berritzeko lanak amaitu dira, eta bideo teknologia aurreratua bat edukiko dugu horri esker. Hala, teknologia digitaleko kamerak erabiltzen hasiko gara pixkanaka egungo kamera analogikoen ordez.
- **ITS EKIPAMENDU BERRIAK:** Batez besteko abiadura kontrolatzeko sistema bat (bide zatiko radarra) instalatzea eta martxan jartzea onartu da; zehazki, BI-633 errepidearen zati batean (Trabakua mendatean).

NEGUKO BIDEZAINZTA PLANari dagokionez, 2020an sei aldiz aktibatu zen, Jarraipen eta Informazio Fasean (elur maila 1.000 metrotik behera, prezipitazio esanguratsuekin). Gainera, bi aldiz aktibatu zen Fase Operatiboa (elur maila 700 metrotik behera, prezipitazio handiekin). Mobilizatutako baliabideak izan ziren Foru Aldundien/Autopisten elurra kentzeko makinak (192), Trafiko Zuzendaritzaren garabi astunak (7) eta Bide Koordinazioko Postuak (Ertzaintzako agente batek eta Errepideen Kontserbazioko teknikari batek osatutako patruilak, batera ebaluatzeko hiru lurraldeetako bide sarearen egoera).

Azkenik, TRAFIKO OPERAZIO BEREZIEI dagokienez, udako Irteera Operazioan, ez ziren egin uztailearen azken asteburuko eta abuztuaren lehen asteburuko ohiko seinalizazio operatiboak (AP-1/N-622 eta N-622/A-1 loturetan, Burgos/Madril noranzkoan), nazioarteko trafikoaren intentsitate txikiagatik. Hala ere, prebentzio modura, AP-8/AP-1/N-622/A-1 nazioarteko ibilbidearen zerbitzuguneetan, bi noranzkoetan, kartelak ipini ziren koronabirusari aurre egiteko neurri higienikoak gogorarazteko. Bestetik, Itzulera Operazioan, seinalizazio operatiboak egin ziren Armiñongo bidegurutzean abuztuaren 20, 21, 22, 23, 27, 28, 29 eta 30ean (A-1 errepidearen lotura antzinako AP-1 errepidearen irteerarekin, Gasteiz noranzkoan).



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

2020an, 4 aldiz bildu da Jokoaren Euskal Behatokia (07/08, 07/21, 11/02 eta 12/14), bere alorrean (jokoa Euskadin) eduki informatiboak eta analitikoak sortzen jarraitzeko, eta joko arduratsua sustatu eta joko problematikoa prebenitzeko Ekintza Planaren jarraipena egiteko. Horretarako, kontratu bat egin da IKEI enpresarekin eta dirulaguntza bat sinatu da 3 urterako UPV/EHurekin.



SEGURTASUNA KOORDINATZEKO ZUZENDARITZA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeak 15/2012 Legeak definitzen du segurtasun publikoaren antolamenduaren kontzepzio integral bat, administrazio publikoen xedapenak, prozedurak eta baliabideak artikulatzen dituen, baldintzak sortzeko eta oztupoak kentzeko pertsonen beren eskubideak eta askatasunak erabil ditzaten eta bakean, ongizatean eta gizarte kohesioan bizi daitezen, ahal den neurrian arriskuak txikituta, nahitako edo nahigabeko arriskuak, urra ditzaketenak haien eskubideak eta askatasunak, segurtasuna, eta haien ondasunak eta ondare kolektiboa.

Legeak azpimarratzen du segurtasunaren helburuak, estrategiak eta jardun lerroak planifikatzeko beharra. Plangintza horren gailurrean, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra dago, 5 urteko indarraldiarekin,



urtero Eusko Legebiltzarrean planaren betetze mailari buruzko azalpenak emateko betekizunaz. Testuinguru horretan kokatzen da Euskadiko Segurtasun Publikoaren 2014-2019 Plan Orokorra, lerrokatuta gainera XI. legegintzaldian aurkeztu zen Gobernu Programako segurtasun arloko helburu estrategikoekin.

2020. urteko egoera berezia dela eta, luzatu egin zen 2014-2019 Planaren indarraldia, eta lan handia eta koordinatua egin zuten Segurtasun Sailburuordetzako zuzendaritza guztiek, Euskadiko Segurtasun Publikoaren bigarren Plan Orokorren (2020-2025 ESPPO) edukia eta gidalerroak garatzeko, batik bat. Guztira, 52 bilera egin ziren.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren eginkizunetako bat da planari buruzko informazioa ematea, eta horixe egin zuen 2020an eginiko bi bileretan. Kontseiluaren 2020ko uztailaren 15eko bileran, 2019 urteko ebaluazioa aurkeztu zen, 2020-2025 ESPPOren gidalerroekin batera; 2020ko azaroaren 25eko bileran, plan berria ezagutarazi zen osoki. Ziurrenik, plan berri hau 2021. urte hasieran aurkeztuko da Eusko Legebiltzarrean, eta hasiera ofiziala emango dio horrek.

Aipatzekoak dira ere Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea osatuko duten sei pertsonak hautatzeko egin diren lanak. Batzorde hori sortu zuen ekainaren 27ko 7/2019 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea bosgarrenez aldatu zuenak, kide anitzeko organo gisa, polizia erakundearekiko eta Eusko Jaurlaritzan segurtasun eskumena duen sailarekiko autonomia funtzionalaz, eta haren helburua da herritarren legimitatea eta konfiantza indartzea polizia jardueraren gaineko kontrolen neutraltasunarekiko eta objektibotasunarekiko.

3. ARDATZA. KOORDINAZIOA



ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA

AECOC merkataritza kodifikaziorako Espainiako Agentziarekin eginiko akordioaren ondorioz, 2020an urratsak egin dira salaketak jartzeko prozedura baten inplementazioan, merkataritza establezimenduetan lapurreta delitu arinak egin eta delitu tokian identifikatu diren pertsonen aplikatu beharrekoa. Orain arte, prozedura ezarri da Eroski, Mercadona, Carrefour eta Desigual konpainietan, eta aktibatu egiten da lapurreta delitu arin bat egin duen pertsona bat atxiki eta Ertzaintzari deitzen zaionean. Saltokiek, beren sistema informatikoetan, Ertzaintzak emandako salaketa ereduak dituzte, eta patruilak, salaketa orria beteta jaso ondoren, inplikaturako pertsonak identifikatu eta epaiketa azkarrerako zitazioak egiten ditu. Prozedura horri esker, enpresetako langileek ez dute joan-etorriak egin behar salaketak jartzeko eta Ertzaintzaren lan karga txikitzen da. 2021ean, prozedura zabalduko dugu lurralde eta enpresa gehiagotara.

Koordinazioaren eta nazioarteko koordinazioaren alorrean, 2020an Ertzaintzak azken urratsak egin ditu GSN (Global Shield Network) sareko eskubide osoko kide izateko, polizia erakundeen sare bat, helburutzat duena alde biko elkarlana polizien eta erakunde publiko eta pribatuen artean, terrorismoaren aurkako borrokan. Horrela, Ertzaintza Europako lehenengo polizietako bat izan da GSN sarean sartzen, Anbereseko Poliziarekin eta Londresko Polizia Metropolitanoarekin batera. Azaroan aurkezpen ofiziala egin zitzaizen sarean egongo diren Euskadiko lehen 80 erakundeei. Aurrera begira, sarea zabaltzen jarraituko da, bai toki mailan (Euskadiko erakunde gehiago sartuz sarean) bai Europa mailan, egitasmoan parte hartuko duten polizia erakunde gehiagoren bila.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

2020an, LAEMZ elkarlanean aritu da tokiko erakundeekin, babes zibileko eta larrialdietako araudiari loturiko aholkularitza eta interpretazio zereginetan. Hala, hainbat udalerritako larrialdi planak gainbegiratu dira; hala nola Etxebarrikoa eta Ermukoa. LAEMZ elkarlanean aritu da ere Araubide Juridikoaren Zuzendaritzarekin, 25 lankidetzak hitzarmen egokitzen (Santurtzi, Lantaron, Hernani eta Muskiz udalekikoak, besteak beste), lankidetzak esparru bat ezarri eta arautzeko larrialdietan biztanleei abisuak emateko sistema bat ezartzeari dagokionez. Gainera, Gobernu Kontseiluak onartu egin du lankidetzak hitzarmen eredu berri eta bakar bat, Euskadiko udalekin erabiltzeko, larrialdi sirenen instalazioari buruzkoa.

LAEMZek, halaber, bi simulakro koordinatu ditu, hainbat erakunderen laguntzaz. COVID-19aren osasun alerta dela eta, gure erkidegoan ez da egin LAEMZren partaidetza behar izan duen ekitaldi berezirik.

LAEMZek parte hartu du larrialdi arloko erakundeak koordinatzeko hainbat bilkura eta batzordetan: Euskadiko Babes Zibileko Batzordea, Babes Zibileko Kontseilu Nazionaleko Batzorde Iraunkorra, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako (SPISZ) Batzordea, Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordea, eta Garoñako Zentrala Desegiteko Prozesuaren Jarraipen



Instituzionaleko Batzordea.. Gainera, LAEMZek proposatutako Formakuntza Plana onartu du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Kontseilu Araupetzaileak.

Euskal boluntarioek 2020an eginiko lana (COVID-19ak baldintzatutako urtea) hainbat gizarte zereginen inguruan ardaztu da: konfinamenduan adinekoei babesa ematea, gaixoak ospitaleetara eta osasun zentroetara eramatea, egoera zaurgarrian dauden pertsonen laguntzea, Osakidetzari PCRak egiten laguntzea, maskara higienikoak banatzea garraio publikoko gune nagusietan, etab.

Lehenengo alarma egoeran (2020ko martxotik ekainera), LAEMZek, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal sistema osatzen duten zerbitzuen bidez, sistematikoki eta modu antolatuan lagundu zien herritarrei eta administrazioen erakundeei instalazioen eta bide publikoen desinfekzio lanetan. Honako hauek parte hartu zuten: hiru lurraldeetako eta hiru hiriburuetakoa suhiltzaile zerbitzuek (SPISZ), Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak (Basalan), Ertzaintzaren Lehergailuak Indargabetzeko Unitateak (LIU), Euskal DYAK, Gurutze Gorriak eta Irun, Errearteria, Ordizia, Pasaia, Basauri, Barakaldo, Balmaseda, Muskiz, Urduña eta Ortuellako udal babes zibilek. Baliabideak koordinatzeko, egun bakoitzerako aurreikusitako lanen berri eman zion alde aurretik zerbitzu bakoitzak SOS Deiaki, eta eginiko desinfekzioak dokumentatu zituen egunero COVID Multiagentezia Taktika Operatiboari zegozkion jarduketan bidez (jarduketa horiek, lurralde bakoitzerako, SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan ezartzen ziren). Guztira, 5.038 desinfekzio egin ziren, egunero 79 instalazio eta bide publiko, batez beste.

2020an, honako hauek ziren Segurtasun Sailarekin lankidetzak hitzarmenak zituzten erakundeak: Gurutze Gorria, DYAK, Euskadiko Larrialdietarako Boluntario Digitalen Elkartea-VOST EUSKADI, Euskal Espeleologoaren Elkargoa, Euskal Mendizale Federazioa, eta Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea. Gainera, LAEMZ elkarlanean aritu da Araubide Juridikoaren Zuzendaritzarekin 25 hitzarmen egokitzen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera.

Ezin dugu aipatu gabe utzi larrialdien arloan 2020an izan zen gertakari larriena: Zaldibarko zaborteagiko lur jausia. LAEMZek, beste erakunde batzuekin batera, Koordinatzaile eta Jarraipenerako Mahai Teknikoan parte hartu zuen, haren helburua izanik hurrengo egunetarako lanak zehaztea eta horien berri ematea herritarrei eta hedabideei. Mahai Teknikoa egunero bildu zen, otsailaren 26ra arte, astero udalerrir batean.



TRAFIKO ZUZENDARITZA

2020an, Trafiko Zuzendaritzak parte hartu du Arku Atlantikoa (3. fasea) eta EU-EIP (European ITS Platform) europar proiektuetan. Bigarren egitasmo horren helburu nagusia da ITS (Intelligent Transport Systems) sistemak eta zerbitzuak ezartzea Europa barneko errepide sarean. Parisen eginiko bilera batean parte hartu da, modu presentzialean, eta bideokonferentziaz eginiko beste zazpi bileratan, pandemiak eragindako mugikortasun murrizketengatik. Era berean, EBK eta proiektuen idazkaritza teknikoak eskatutako txostenak egin dira.

Gainera, 20/02/20an, Trafikoko zuzendariak parte hartu zuen "2030erako munduko helburuak lortzea" izenburupean egin zen Bide Segurtasunari buruzko III. Konferentzia Globalean, Stockholmen, 1.500 lagun baino gehiago bildu zituen: estatu kideetako ordezkariak, Garraio, Osasun eta Barne ministroak, Nazio Batuetako goi funtzionarioak eta 140 herrialde baino gehiagoko gizarte zibileko, unibertsitateko eta sektore pribatuko ordezkariak.

Era berean, Trafiko Zuzendaritzak parte hartu du ere FESVIAL fundazioak (Fundación para la Seguridad Vial) antolatutako hiru web mintegitan: “La movilidad, ¿qué debemos hacer después del confinamiento?” (20/04/15), “La formación de los conductores en Europa: ¿España en contradirección?” (20/05/6) eta “La nueva movilidad en tiempos de Covid19” (20/11/17).

Bestetik, urtarrilaren 31n, Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariak aurkeztu zuen Ertzaintzak Udaltzaingoen laguntzaz egiten dituen Zaintza eta Kontrol kanpainen egutegia (osasun krisiagatik burutu ezin izan zena). Ertzaintzaren Erandioko egoitza nagusian eginiko lan bileran izan ziren Rodrigo Gartzia Segurtasun Koordinazioko zuzendaria, Iñigo Ibarra Ertzaintzaren Trafikoko Buruzagitza Nagusiko intendentea, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udaltzaingoen ordezkariak eta Ertzaintzaren Trafikoko Lurralde Unitateetako arduradunak. 49 kanpaina planifikatu ziren (2019an baino 5 gehiago), hainbat arrisku faktoreri buruzkoak (abiadura, arreta galtzeak, alkohola eta drogak...), arreta berezia jarrita motor gidarien abiaduraren kontrolean. Kontrol eta zaintza kanpainen helburua da bide segurtasuna handitzea eta trafiko istripuek eragindako biktima kopurua txikitzea.

2020an, Ertzaintzak hainbat eratako prebentzio ekintzak egin ditu: 15.805 alkoholemia proba; 1.225 droga proba; IAT kontrolak 4.652 ibilgailuri; kasko/segurtasun uhal kontrolak 18.976 ibilgailuri; abiadura kontrolak 1.232.700 ibilgailuri. Gainera, 272 droga proba egin zituen istripuen ondorioz; 1.305 droga proba arau hausteen ondorioz; 6.174 alkoholemia proba istripuen ondorioz; eta 1.260 alkoholemia proba arau hausteen ondorioz.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak jarraitu du bere helburuak betetzeko konpromisoarekin, beste segurtasun eta operazio talde batzuekin koordinatutako ekintzen laguntzaz. Hala, EUDELekin bilerak egiten jarraitu du (bilera bat 2020an), gai komunak aztertzeko, jolas jardueri eta ikuskizun aretoei buruzkoak. Zerga alorrean, bilera bat egin du Foru Aldundiekin eta beste bi, Zerga Administrazioako Zuzendaritzarekin. Eta koordinazio bilerak hainbat kontseilu eta batzorderekin: COVASAT (1), Jolas Jardueren Euskal Kontseilua (1) eta Jolas Jardueren Batzordea eta Kontseilua (1).

Gainera, bilera bat egin da Kultura Live elkartearekin eta beste bat, Bermeoko Ostalariekin (gaueko aisialdia). Estatu mailan, bilera bat egin da ONCErekin, 2 Club de Convergences-ekin, 1 Luckia atariarekin, 2 CEJUEGO enpresa kontseiluarekin, 1 Joko Politiken Kontseilu eta Batzorde Sektorialarekin eta 1 Plataforma para el Juego Sostenible egitasmoarekin (10/27).b



SEGURTASUNA KOORDINATZEKO ZUZENDARITZA

COVID-19aren krisia kudeatzeko osasun larrialdiaren eta alarma egoeraren deklarazioak, egoera epidemiologikoaren bilakaerak eta SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapenaren kontentzioak



baldintzatu egin dute Udaltzaingoak Koordinatzeko Arloaren zeregina. Aldi berean, zalantzarik gabe, indartu egin dute Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren koordinazioa eta lankidetzak (Ertzaintza eta Udaltzaingoak).

2020ko osasun krisian, poltsetara jotzea izan da segurtasun publikoko agente kopurua bermatzeko modurik erabakigarrienetakoa. Hori horrela, bai funtzionarioen poltsak bai bitarteko funtzionarioenak, baita udaltzain laguntzaileenak ere, erantzun egin diote gutxieneko agente kopuruak bermatzeko beharrari, Udaltzaingoak beren zeregina betetzeko moduan egon zitezten.

Errealitate berrira egokitzeko, martxan jarri behar izan dira lan dinamika eta modu berriak. Bilera gehienek presentzialak izateari utzi diote eta bilera telematikoa sartu dira Lantaldeen agendetan, etenik izan ez dadin haien zereginetan. Mugarrak nagusien artean, nabarmentzekoa da lehen hautaketa prozesu bateratua Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) oinarritzko eskalako agente kategorian; 26 udalek parte hartu dute eta 157 udaltzain lanpostu eskaini dira.

Urtearen bigarren erdian, hasiera eman zaio bigarren hautaketa prozesu bateratuari; 18 udalek parte hartu dute eta oinarritzko eskalako 51 plaza eskaini dira.

Urtean zehar, beste 13 udalek bat egin dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Udalen arteko elkarlanerako esparru hitzarmenekin, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzarako, eta horiek garatzeko protokoloak sinatzen ere hasi dira. Gainera, Segurtasun Sailak eta udalek zituzten 50 TETRA hitzarmen berriak dira. Horiei, hitzarmena izenpetu duten beste 5 udal gehitu behar zaizkie.

Urtearen amaierarekin bat etorritik eta legegintzaldian zehar egin bezala, 2020an ere egin da Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen bilera (2020ko abenduaren 15ean) eta Euskadiko Udaltzaingoen Buruzagitzen bilera (2020ko abenduaren 17an). Bilkurak telematikoa izan dira.

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak ordezkartza du Segurtasun Batzordean adostutako polizia koordinazio ereduaren maila politiko, estrategiko eta operatiboan. 2020. urtearen hasieran, areagotu egin ziren Koordinazio Batzorde Iraunkorra aktibatze lanak, eta urtarilean prestaketa bilera bat egin zuten Segurtasun Saileko eta Barne Ministerioko goi arduradun politikoek. Osasun larrialdiak bertan behera utzi zuen Batzorde Iraunkorraren bilera, baita Segurtasun Batzordearen gainerako koordinazio egitura antolatzaileena ere.

Dena dela, Alarma Egoera ezarri zuen 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, alde biko bilerak egin dira, Gobernu Ordezkaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordetzak batera deituta, Ordezkaritzaren egoitzan edo Eusko Jaurlaritzarenean, txandaka. Koordinazio organo hori, politika eta polizia goi arduradunek osatutakoa, hamar aldiz bildu da, gai zerrenda honekin: jardura koordinatzeari buruzko hainbat puntu, COVID-19ak eragindako Alarma Egoeraren Dekretuaren ondoren ezarritako irizpideekin.

2020an, Azterlan eta Analisisien Dibisioak ehundik gora txosten egin ditu (hileroko, hiruhileko eta urteko estatistikoak, arau hauste penalei, atxilotetegi, ikerketegi, biktimak eta biktimizazioei, delitu informatikoei, HSBLOri eta abarrei buruzkoak), Segurtasun Sailarentzat, Eusko Jaurlaritzako Sail eta Erakundeentzat, eta Barne Ministerioarentzat.

4. ARDATZA. PRESTAKUNTZA



POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA

2020ko ekitaldian, Akademiaren ikastaroetan izan diren 6.636 matrikulazioetatik (5.464 gizon eta 1.172 emakume), 2.866 matrikulazio Ertzaintzako kideenak izan dira (2.332 gizon eta 534 emakume). Gainerako matrikulazioak izan dira eguneratze eta hobetze ikastaroetan, informatika, euskara, ingelesa etab. Ertzain bakoitzeko batez besteko prestakuntza orduak 129,69 izan dira.

4.191 pertsona aurkeztu dira Ertzaintzaren XXIX. Promozioaren hautaketa prozesura (3.049 gizon eta 1.142 emakume).

Euskadiko udaltzaintzako ikastaroei dagokienez, Akademiak 2.161 matrikulazio izan ditu (1.644 gizon eta 517 emakume).



ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA

Bere Balioen deklarazioa abiapuntu hartuta, Ertzaintzak finkatu, sendotu eta zabaldu egiten du bere lidergo eredua, pertsonen hazkundea sustatuta, haien autonomian sakonduz eta erabaki hartzea hobetuz. Arreta berezia jartzen da pertsonen Ereduaren garapen integralean duten partaidetzan. Lanbide kualifikazioa oinarritzen da ezagutza teknikoetan eta gatazkak konpontzea errazten duten trebetasun sozialetan; azken batean, lanbide jarduna hobetzeko.

Ertzainen kualifikazioa hobetzera bideratutako irakaskuntzan eragina izan dute COVID-19aren hedapena geldiarazteko hartutako neurriek. Zehazki, eragina izan dute sarrera, barne sustapen eta espezializazio ikastaroetan, baita prestakuntza jardunaldietan ere. Martxoaren 10ean, bertan behera gelditu zen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren prestakuntza lana. Ondorioz, prestakuntzan zeuden agenteak beren unitateetara itzuli ziren, irakasleek laguntza zereginei ekin zieten eta XXVIII. promozioiko ikasleak praktiketako agente gisa hasi ziren ertzain etxeetan. Maiatza bukaeran, Akademiaren jarduerari berrekin zitzaien, pixkanaka eta mailaz maila.

Ertzainen lanbide kualifikazioa hobetzeko, hainbat ikastaro egin dira: barne sustapena (1 ikastaro, 656 agente), espezializazioa (2 ikastaro, 296 agente), eguneratzea eta hobetzea (57 ikastaro, 1.816 agente) eta euskalduntzea (4 ikastaro, 86 agente), baita prestakuntza jardunaldiak ere (2 jardunaldi, 33 agente). Guztira, urtean 561.196,80 prestakuntza ordu eman zaizkie 2.694 agenteri, 208,31 ordu batez beste ertzain bakoitzeko.

2020an, finkatu egin da Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana. Gaur egun, Euskararen Erabilera Planaren ekintza espezifikoak 16 polizia unitatetan ezarrita daude. Gainera, komunikazio estrategia berriak garatzen ari dira; esaterako, planari buruzko bideoak egin eta unitateetan banatzen dira, edo "pilula soziolinguistikoak" helarazten zaizkie Ertzaintzako agenteei, "euskararen gramatika gomendioekin" txandakatuta (Gureneta ere argitaratzen dira). Euskaraldiaren bigarren edizioa inflexio puntua izan da Ertzaintzan euskararen erabileran, eta Ariguneen bidez erakunde gisa parte hartu da. Emaiza oso positiboa

izan da, bai parte hartzeari dagokionez bai herritarrei begira. Hain zuzen, Euskararen Nazioarteko Egunean, Sailak Erandioko egoitzan egin zuen ekitaldi instituzionalean, Ertzaintzaren Hiztegi Terminologikoaren argitalpena iragarri zen (Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen webguneetan).



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

2020an, pandemia dela eta, nabarmen murriztu da LAEMZren prestakuntza jardura. Zailtasunak zailtasun, etengabeko lankidetzak izan da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin (PLEA) larrialdi zerbitzuen prestakuntza. Laburpen gisa, 2020an, LAEMZek parte hartu du 23 ikastaro eta hitzalditan, eta 216 lagun bertaratu dira saio horietara.

LAEMZek antolatutako edo emandako ikastaro esanguratsuenen artean, nabarmentzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiko kudeatzaile-operadoreei emandakoa, Suhiltzaileen Uriosteko (Bizkaia) egoitzan aritzeko.

Era berean, LAEMZek, Osasun Sailak bultzatutako Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren Jarraipen Batzordeko kide den aldetik, dokumentu horretan ezartzen den etengabeko prestakuntzako jardun arloaren barruan, prestakuntza eman die Osakidetza Larrialdietako Osasun Kontseiluari atxikitako profesionalei, 112 SOS Deiakeko operadoreei eta Jokabide Autolitikoen Gertakariekin lotutako telefono deiei erantzuten dieten kudeatzaileei.

Biktima Anitzeko Istripuetako biktimei eta senideei arreta psikosoziala emateko prestakuntzaren barruan, LAEMZk ikastaro bat eman zien Gasteizko Forondako aireportuko "handling" agenteei (lurreratu diren hegazkinetan egin beharreko lanez arduratzen diren langileak) eta aireportu horretan diharduten gainerako zerbitzuei, kontaktu pertsonari eta haren taldeari buruzkoa, eta ezaugarri hauetako larrialdietako biktimek eta haien senideek behar duten arreta psikosozialari buruzkoa.

Nabarmentzekoa da ere LAEMZren laguntza Euskal Mendizale Federazioak 152 pertsonari autobabesari buruz emandako 10 hitzalditan, Gipuzkoako hainbat udaletan, mendi elkartetan eta UPV/EHuren campusetan.

Azkenik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, larrialdietako bozeramailetzari buruzko bi ikastaro eman zizkien LAEMZek Gasteizko udal suhiltzaileei, hedabide tradizionaletan eta sare sozialetan oinarritutakoak.



TRAFIKO ZUZENDARITZA

Trafiko Zuzendaritzak, bat etorri Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako 2015-2020 Plan Estrategikoan jasotako orientabide estrategikoekin, lanean jarraitzen du hezkuntzaren, prestakuntzaren eta kontzientziazioaren arloetan. Helburua da mugikortasun segururako hezkuntza sustatzea eta ematea, eta ohitura eta jokabide seguru eta arduratsuak bultzatzea bide segurtasunari lotuta, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzen bidez.



Zehazki, jarraipena izan dute "Gerta dakizuke" egitasmoak eta "Norabide guztiak" Forum Antzerkiak, eta indartu egin da "Zuk ez duzu ordezkorik" prebentzio estrategia, Euskadiko ikastetxeetako ikasleei zuzendua. Era berean, Trafiko Zuzendaritzak jarraitzen du mugikortasun segururako balioak sustatzen dituzten materialak sortzen, hezkuntza testuinguru ez-formaletan erabiltzeko; esaterako, 74.000 eskola agenda banatu ditu Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleen artean.

"Zuk ez duzu ordezkorik" programa ibiltaria, bigarren hezkuntzako gazteak kontzientziatzea helburu duena, 8 udalerritara iritsi da 2020an. Guztira, 13 saio egin dira eta 1.359 ikaslek parte hartu dute. COVID-19aren osasun krisia hasi zenetik, on-line formatura egokitu dira saioak, ikasgeletako sentsibilizazio lanarekin jarraitzeko higie eta osasun berme guztiak beteta.

2017an abian jarri zenetik, programa 44 udalerritako 141 ikastetxetara iritsi da, hiru lurraldeetako hiriburuak barne, eta harrera beroa izan du leku guztietan. Guztira, 100 ekitaldi programatu dira eta 22.694 ikaslek parte hartu dute, eta, orain arte, ikus-entzunezko programaren balorazioa positiboa izan da. Inkestari erantzun dioten ikasleen %98k neurriak hartuko dituzte trafiko istripuak saihesteko.

Trafiko Zuzendaritzak abian jarri duen proiektuak bi elkarteren laguntza du (Stop Accidentes eta Bizkarrezurmuinaren Azterketarako Elkartea - AESLEME), baita istripuek eragindako larrialdietako profesionalena ere (Ertzaintza, Udaltzaingoa, Osakidetza, Salbamenduak eta Su Itzalketak, eta Larrialdiak).

Pandemia dela eta, 2020an ez da egin "Zuk ez duzu ordezkorik" lehiaketaren hirugarren edizioa. Lehiaketaren helburua da gazteen artean trafiko istripuen prebentzioa sustatzea eta mugikortasun seguruko eta jasangarriko alternatibak bultzatzea.

"Pausoz-pauso, seguru" programaren xedea da 64 urtetik gorako pertsonak sentsibilizatzea oinezkoen harrapaketa arriskuaz, eta autobabesa sustatzea, trafiko istripuen prebentziorako. Osasun krisia dela eta, ezin izan dira egin 2020rako aurreikusita zeuden saioak, nahiz eta gogoeta lan bat egin den egoitza, zentro soziokultural eta adinekoen elkarteetako profesionalekin, egoeraren diagnostikoa egiteko eta proposamenak jasotzeko, kolektibo horretan trafiko istripuak prebenitzeko moduei buruzkoak.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

2020an, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak jarraitu du Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateko kide berriak (6) trebatzen, hainbat arlotan: joko makinak eta sistemak, autobabesa, material piroteknikoa eta informatika, besteak beste. Gainera, prestakuntza indartu da ere zeharkako gaietan, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako kideentzat. 20 ikastaro antolatu dira eta 11 pertsonak parte hartu dute.



5. ARDATZA. KOMUNIKAZIOA



ERTZAINZAREN ZUZENDARITZA

Ertzaintzak barne mailan etika profesionala eta jardueren gainbegiratzea sustatzeagatik aitortua izan nahi du. Ertzaintzak gizartearekin duen konpromisoa, halaber, honako hauek kontuan hartuta neurtzen da: gardentasuna, euskararen erabilera bultzatzea, dibertsitatea errespetatzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, eta, oro har, giza eskubideen errespetua. Gizartearekin duen harremana bultzatzeko, elkarlana eta elkarren mesederako itunak garatzen dira, bakearen eta bizikidetasunaren arloan sustatzen direnak barne. Arlo horietan egiten duen ahalegina ezagutzera emateko, Ertzaintzak kanpo komunikazioko plan bat du.

EAEko Poliziaren 1/2020 Lege berriak, uztailaren 22koak, berretsi egiten du Ertzaintzak euskarazko hizkuntza gaikuntza eskuratzen jarraitzeko helburua, euskararen erabilera sustatuz bai barneko lan harremanetan, bai herritarrei ematen zaizen arretan, hargatik eragotzi gabe, gizarte elebiduna garen aldetik, herritarrak aukeratutako hizkuntzan artatzea.



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

Abisuen, alerten eta alarmen sistema oinarritzko tresna bat da, meteorologia fenomeno kaltegarrien mehatxuak eta horiek eragin ditzaketen kalte material eta pertsonalak gutxitu ahal izateko. 2020an, 267 abisu hori, 34 alerta laranja eta alarma gorri 1 aktibatu ziren. Nabarmendu behar da egun berean abisu hori bat baino gehiago egon daitezkeela eta alerta laranja bat baino gehiago ere bai, fenomeno desberdinekin lotuta.

Euskadiko herritarrengana autobabes maila handitzeko berme handienarekin heltzeko helburuarekin, LAEMZek bi kontu ditu Twitter-en: @112_SOSDeiak (jarritako txioak: 3.799; jarraitzaile kop.: 35.553; webgunearen bisitak: 109.473; App-aren deskargak: 33.820) eta @Euskalmet (jarritako txioak: 4.539; jarraitzaile kop.: 116.472; webgunearen bisitak: 10.324.710; Euskalmet App-aren deskargak: 44.128). LAEMZek, halaber, bi kanal ditu YouTube plataforman: SOS Deiak 112 eta Euskalmet. 2020an dibuzgaziozko eta autobabesari buruzko 12 bideo egin ziren, eta horien artean nabarmendu behar dira Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Zerbitzuari buruzko bideo orokorra eta Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa aurkeztekoa. Pandemiaren ondorioz ezarritako murrizketak direla eta, Zentro horretan ezin denez bisitarik jaso, bideo horri esker, herritarrek ezagutu ahal izan dute Euskadiko larrialdiak jasotzen, kudeatzen eta koordinatzen diren eraikina.

Betiko komunikabideei dagokienez, 2020an, LAEMZek, Segurtasun Saileko Komunikazio Zuzendaritzak koordinatuta, prentsan 44 elkarrizketa, irratan 136 elkarrizketa, telebistan 84 elkarrizketa, eta 39 prentsa ohar egin ziren.

Horrez gain, LAEMZek, Euskalmeten bitartez, urte osoan (asteburuetan ere bai) eguraldiaren iragarpenera modu pertsonalizatuan eskaini zien, goizeko eta arratsaldeko ordutegian, EAEko irratia hauei: Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervi3n, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero Bizkaia, Onda Cero San Sebastián, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, eta Uribe FM. Dibulgazioaren arloan, Euskal Meteorologia Agentziak 2020an lankidetzan finko hauek izan zituen: Berria (eguraldiaren iragarpenera egunero), Radio Euskadi (kolaborazioa hilean behin “La Mecánica del caracol” saioan) eta Euskadi Irratia (kolaborazioa hiru hilean behin “Norteko Ferrokarrila” saioan). Gainera, egunean bi soinua interbentzio egin ziren Berria egunkariaren bertsio digitalerako, unean uneko iragarpenera emateko.

Zaldibarko ezbeharrari dagokionez, lehenago adierazi den moduan, LAEMZek Koordinazio eta Jarraipeneko Mahai Teknikoan parte hartu zuen beste erakunde batzuekin batera. Mahai horren bilera bakoitzaren ondoren, prentsaurreko bat egin zen, hedabideei eta herritar guztiei egindako aurrerapen eta hartutako neurrien berri emateko.



TRAFIKO ZUZENDARITZA

Trafiko Zuzendaritzak lanean jarraitu du herritarrekiko komunikazioa areagotzeko eta optimizatzeko, premisa honen pean: herritarrei modu zuzen, berehalako eta irimok informatzea euskal bide sareko trafikoari buruz, hainbat tresnarekin, hala nola *Trafikoa App-a*, *webgunea*, *sare sozialak*, *24 orduko telefono arreta*, *etab.*

2020an, 24.867 jarraitzaile izan dira Twitterren (98.472 txio), 011 zenbakian 18.677 kontsultari erantzun zaie eta 29.118 koordinazio egin dira, www.trafikoa.eus webgunean hilean batez beste 195.105 sarrera egin dira, YouTube 101.329 bisualizazio egin, 56 bideo igo eta 47 harpidedun egin dira, eta App-tik 1.271 deskarga egin dira.

Gainera, 2020an Trafiko Zuzendaritzak 3 prentsaurreko egin, 13 prentsa ohar atera eta, guztira, hedabideen 58 eskaera izapidetu ditu. Bestalde, 2020an publizitate kanpaina bat egin da: “Volver a salir / Berrir ateratzea”. Ekainaren 26tik abuztuaren 31ra egin zen, hain zuzen.

Komunikabideekin etengabeko harremana dugu, euskal bide sarean gertatzen denari buruzko informazio zehatza emateko.

Bestalde, abenduaren 2an, Trafiko Zuzendaritzak antolatutako urteko Jardunaldi Profesionala egin zen Iberdrola dorrean. 2020ko edizioan, gai hau aukeratu zen: “Euskadiko Bide Segurtasuna, Garapen Jasangarriarako Helburua 2030”. Bertan, nazioarteko eta tokiko hizlariak parte hartu zuten. 140 pertsona baino gehiago bertaratu ziren.



JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA



Joko arduratsuari buruzko dibulgazio eta sentsibilizazio jardunaldiak egin dira hainbat forotan eta hainbat eragile laguntzailerekin: Ludopatiak elkarteak, Asajer, Ekintzabibe eta Ekintza Aluviz.



SEGURTASUNA KOORDINATZEKO ZUZENDARITZA

Ekinbide – Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritar Ekimenen Bulegoa Segurtasun Saileko zerbitzu ez polizial bat da, eta helburu du herritarrek aurkezten dituzten ekimenak kudeatzea eta ebaluatzea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemak ematen dituen zerbitzuen kalitatea hobetze aldera. 2020an, Ekinbidek 278 kexa, 35 esker emate, 5 iradokizun eta 11 eskabide izapidetu zituen.



ARRISKU ETA MEHATXUAK EUSKADIN

Planak lantzen dituen arriskuak eta mehatxuak hiru motatan sailka daitezke, jatorriaren arabera:

- a) **Naturalak**: zuzenean gizakiaren presentziak edo jarduerak eragin ez dituenak, baizik eta faktore geologikoek edo klimatikoek.
- b) **Antropikoak**: giza ekintzen edo jardueren ondoriozkoak.
- c) **Teknologikoak**: garapen teknologikotik eta teknologien erabilera esanguratsutik eratorritako arrisku antropikoak.

Atal honen funtsa da bereziki EAEko segurtasunari eragiten dioten eta jardun ildo estrategiko zehatzak ezartzea dakarten arriskuak eta mehatxuak zein diren ezartzea. Hori dela eta, 2014-2019 aldirako ESPPO egiteko garaian arriskuak eta mehatxuak zehaztutu ziren, aintzat hartuta Euskadiko Babes Zibileko Planean (LABI) jasotako arriskuen analisia eta Euskadin dagoen delinkuentziaren analisia, segurtasunean duten eraginaren arabera (baliabideen banaketa analisia *kontrolerako, arretarako eta prebentziorako*).

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra segurtasunaren ikuspegi integrala aurkeztu nahi du, helburuak eta jardun ildoak zehaztuz, arriskuen eta mehatxuen analisiaren emaitzetan oinarrituta, zehaztutako bost ardatz estrategikoen ikuspegitik.

Antzemandako arrisku eta mehatxuei aurre egiteko, estrategia proaktibo bat ezartzeak arrakasta izateko aukera handiagoa eskaintzen du. Helburua giza kaltearen, kalte estrukturalaren eta ekonomikoaren ondorioak arintzea da, arazoaren sustraiei helduta, eta ez soilik delitu ekintzei edo ekintza kaltegarriei. Euskadin segurtasunaren arloan aritzen diren sailek gatazkaren fase guztiei helduta jarduten dute: prebentzioa, babesa, erantzuna eta berreskuratzea. Segurtasun politikek ikuspegi integrala izan behar dute, erakunde, profesional eta herritar guztiak barne hartzen dituen, beste sektore batzuekin lankidetzan arituz, hala nola hezkuntza sektorearekin, delitu jokabideak prebenitze aldera. Azken batean, baliaututako ikuspegiak zabala, pragmatikoa, malgua eta errealista izan behar du, une oro errealitatera egokituta. Era berean, aintzat hartu behar ditu herritarrei eragin diezaieketen eta, beraz, segurtasunaren arloan arazo bat sor dezaketen arriskuak eta mehatxuak, herritarrei segurtasun mailarik handienak bermatzen saiatuta.

Jarraian, arrisku eta mehatxu bakoitzerako kontingentzia ekintzen deskribapena aurkezten da (*plana egin bitartean identifikatu direnak*), ESPPO artikulatzen duten ardatzen arabera antolatuta:



1. ARDATZA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

2. ARDATZA PLANGINTZA

3. ARDATZA KOORDINAZIOA

4. ARDATZA PRESTAKUNTZA

5. ARDATZA KOMUNIKAZIOA

TERRORISMOA

- Mehatxu terroristaren aldizkako ebaluazioa
- BAIETZ. Txosten estrategiko berriak Sailarentzat, Dibisioarentzat, Lurraldearentzat eta Unitatearentzat.
- Azkenean ekitaldia atzeratu egin bazen ere, Ertzaintzak 2020ko futboleko Eurokopa (Bilbo du egoitzetako bat) antolatzeke lanetan eta segurtasunezkoetan parte hartu zuen.
- Islamismo erradikalaren aurkako Plan Estrategikoaren jarraipena.
- Ziberkrimenaren eta terrorismoaren aurkako borrokaren arloan, Ertzaintza datu fluxuak muturreko eskalan aztertzeke INGENIUS eta PREVISION proiektuetako lan paketeen buru da.
- Informazio trukea beste polizia kidego batzuekin.
- Ertzaintza eskubide osoko kide gisa integratzea Global Shield Network sarean; haren helburua, polizien eta erakunde publiko eta pribatuen arteko aldebiko lankidetzak da terrorismoaren aurkako borrokaren arloan.
- Euskadiko terroristaren fenomeno aurrean jarduteko bateratzeko jardunaldiak.
- Adituekin jardunaldiak antolatzea ideiak eta esperientziak partekatzeko.



1. ARDATZA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

ZIBERMEHATXUAK

- Informatikarekin, Internetekin eta abarrekin lotutako delituei buruz aurkeztutako salaketak ikertzea.

2. ARDATZA PLANGINTZA

- Ziberkrimenaren eta terrorismoaren aurkako borrokaren arloan, Ertzaintza datu fluxuak muturreko eskalan aztertzeke INGENIUS eta PREVISION proiektuetako lan paketeen buru da.
- IMPULSE proiekturako finantzaketa lortu da. Proiektua 2021ean jarriko da abian eta nortasun digitalari inteligentzia artifizia eta Blockchange delakoa aplikatzen dizkio.

3. ARDATZA KOORDINAZIOA

- Ertzaintzaren presentzia Basque CyberSecurity Centre delakoan.

4. ARDATZA PRESTAKUNTZA

- Ziberjazarpena prebenitzeko hitzaldiak ikastetxeetan.
- Ertzaintzaren ikastaroak: Delitu Informatikoak Oinarrizko Ikerketa

5. ARDATZA KOMUNIKAZIOA

- Komunikabideen bitartez delitu informatikoei buruz informatzea eta/edo ohartaraztea.



1. ARDATZA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

2. ARDATZA PLANGINTZA

3. ARDATZA KOORDINAZIOA

4. ARDATZA PRESTAKUNTZA

5. ARDATZA KOMUNIKAZIOA

DELINKUENTZIA

- Bilboko ertzain etxeko atxilotuen (1973 atxiloteta) kudeaketa zentralizatuaren lehen urtearen ebaluazioak erakutsi zuen baliabideen eraginkortasuna hobetzen duela eta epaileekiko koordinazioa perfektionatzeko laguntzen duela.
- Abian da Landa Ingurunearen Arretarako plana.
- BAIETZ. Txosten estrategiko berriak, estrategikoak ez diren delituen urteko txosten berria, delituen simulazioari eta jarraipenezko gertakariei buruzko aldaketak, "iruzurrak" atal berria, leku moten tipifikazio berrira egokitzea, leku itxietako lapurreten txosten berria eta delituzko jardura garrantzitsuari buruzko txosten berria.
- DARLENE proiektua martxan da; horren bitartez datu bolumen handiak sailkatu ahal izateko aukera emango duen segurtasun proaktiboko irtenbide bat eman nahi da, delituzko jarduerak aurreikusteko, aurreratzeko eta prebenitzeko.
- Joko eta ikuskizunei buruzko plan estrategikoetan proposatutako hobekuntza neurriak garatzea.
- Gorroto delituei buruzko datuak biltzeko sistemari eustea.
- Epaileen, Fiskaltzaren eta Ertzaintzaren Koordinazio Taldearen bilerak.
- Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde Mistoaren bilerak.
- Udalekin lankidetzak hitzarmenak ezartzea.
- Tetra-ENBOR SAREA lankidetzak hitzarmena
- Lan taldeak EUDELekin segurtasunaren arloan.
- Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen prestakuntza ikastaroak delinkuentzia arruntari, sektorekoari eta delitu berriei buruz.
- Segurtasun Publikoko informazio estatistikoa zabaltzea.
- "Prebentzioa komunikaziotik" programa, gizarte osoari zuzendua.



1. ARDATZA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

LARRIALDIAK ETA HONDAMENDIAK

- Alderantzizko 112 zenbakiari buruzko SOS Deiak aplikazioaren funtzionalitate berria aurkeztu da.
- LAEMZek autobabesa sustatzeko jarduerak egiten jarraitu du, arrisku naturalei edo teknologikoei buruzko informazioa emanez eta autobabes planei ekingo dieten teknikari berriak ziurtatuz.
- Martxotik maiatzera bitartean, Ertzaintzak Osakidetzarekin lankidetzan jardun zuen, eta estaldura eskaini zien etxek etxeko arreta emateko edo koronabirusa detektatzeko probak egiteko lekualdatu behar diren osasun langileei.

2. ARDATZA PLANGINTZA

- Babes Zibilaren Kontseilu Nazionaleko Batzorde Iraunkorrak aldeko txostena eman zien Arana eta San Martin de Zar urmaeletako larrialdi planei, bai eta Euskadiko Larrialdi Aeronautikoen Plan Bereziari ere.
- LAEMZek PEMEA, URBAN KLIMA 2050 eta PPRD SOUTH III proiektuetan laguntzen du.
- Abian da komunitateek hondamendiei erantzuteko duten gaitasuna hobetzeko ENGAGE proiektua.
- Ertzaintza INGENIUS proiektuko lan paketeen buru da. Hondamendietan erantzuteko gaitasuna handitzea eta erantzun ekipoen autobabesa ziurtatzea da proiektuaren helburu nagusia.
- Martxan jarri da ISF Police programaren MASC-CBNR proiektua, helburu duena eraso kimiko, biologiko, erradiologiko eta nuklearrak prebenitzea eta neutralizatzea.

3. ARDATZA KOORDINAZIOA

- Zentralaren larrialdietako segurtasuneko operatiboan komunikazioak inplementatzea etengabe Euskadin.
- Tokiko agintaritzekin lankidetzan jarraitzea, hainbat udalerritako (Etxebarri eta Ermua) larrialdi planak gainbegiratuta.
- Herritarrei eta administrazioko erakundeei instalazioen eta bide publikoen desinfekzio lanetan ematen zaien laguntza koordinatzea.
- Boluntarioen inplikazioa Osakidetzari eskainitako babesean Covid-19ari emandako erantzunarekin lotutako lanetan.
- Zaldibarko zabortegearen Koordinaziorako eta Jarraipenerako Mahai Teknikoan parte hartzea.

4. ARDATZA PRESTAKUNTZA

- LAEMZek PLEAk antolatutako 23 ikastaro eta hitzalditan parte hartu du, eta guztira 216 pertsona izan dira bertan.
- LAEMZek prestakuntza eman zien Osakidetzako Larrialdietarako Osasun Kontseiluari atxikitako osasun profesionalei, 112 SOS Deiakeko operadoreei eta gertakarien kudeatzaileei, Jokabide Autolitikoekin lotutako Gertakarien inguruko deiei eman beharreko arreta telefonikoari buruz.
- LAEMZek prestakuntza eman zien Forondako aireportuko "handling" agenteei eta gainerako zerbitzuei Harremanetarako Pertsonaren (HaPe) figurari eta haren taldeari buruz eta biktimei eta senideei ematen zaien arreta psikosozialari buruz.

5. ARDATZA KOMUNIKAZIOA

- Ohiko presentzia komunikabideetan: elkarrizketak, prentsa oharrak eta iragarpen meteorologikoak.
- Etengabeko presentzia sare sozialetan: Twitter @112_SOSDeiak, @Euskalmet; YouTube: SOS Deiak 112 eta Euskalmet.



1. ARDATZA HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA

AZPIEGITURA KRITIKOEN ETA FUNTSEZKO ZERBITZUEN KALTEBERATASUNA

- LAEMZek bi simulakro koordinatu ditu, hainbat erakunderen parte hartzearekin.
- Autobabeserako Euskal Arauaren mendeko 1.021 establezimenduren larrialdiak kudeatzeko datu garrantzitsuak erregistratzea edo eguneratzea. Autobabes planen erregistro orokorra.
- Europako S4AllCities proiektuari ekin zaio, hirietako azpiegiturak, zerbitzuak, IKT sistemak eta Gauzen Internet erresilienteagoak izan daitezen.

2. ARDATZA PLANGINTZA

- Euskadiko Azpiegiturak eta Funtsezko Zerbitzuak Babesteko Plana garatzea
- Azpiegitura kritikoaren Laguntza Operatiboko Planak (LOP) egitea.

3. ARDATZA KOORDINAZIOA

- Hainbat sailtako lantaldeak ezartzea, babes jarduerak koordinatzeko eta gainbegiratzeko.

4. ARDATZA PRESTAKUNTZA

- Segurtasun neurriei (teknikoak, antolamenduzkoak...) buruzko prestakuntza, funtsezko zerbitzuetako mehatxuen aurka.
- Gaiarekin lotutako hainbat kolektibori zuzendutako prestakuntza ekintza ugari antolatzea eta horietan parte hartzea.

5. ARDATZA KOMUNIKAZIOA

- Interesa edo arriskua dela eta hala behar duten enprekin bilerak egitea.

INDARKERIA
SEXISTA1. ARDATZA
HERRITARRENTZAKO
ZERBITZUA

- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta arretari buruzko protokoloak eta prozedurak aztertzea, egon daitezkeen hobekuntzak hautemateko.
- Tratu txarrak jasan dituzten eta laguntza jaso duten emakumeei buruzko jarraipen txostenak garatzea.
- Sexu Esplotaziorako Pertsonen Salerosketaren aurkako plana finkatzea eta areagotzea ertzain etxe guztietan.
- Ertzaintzak jarraipen eta babes neurriak areagotu zituen, biktimek COVID-19aren ondoriozko mugikortasun murrizketa bereziengatik salaketarik jarriko ez zutela aurreikusita.

2. ARDATZA
PLANGINTZA

- Berdintasun politikak eta lana eta familia bateragarri egiteko politikak sustatzeko ekintzak gauzatzea.
- Genero indarkeriaren arloan egindako lantaldeei eta zereginei eustea.

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

- Genero indarkeriari buruzko erakunde arteko protokoloak: Udalak, Ertzaintza, Mankomunitateak, Osakidetza...
- Saileko Talde Teknikoaren (STT) aldizkako bilerak.
- Ertzaintzaren Berdintasuneko lantaldearen bilerak.
- Udaltzaingoen Berdintasuneko lantaldearen bilerak.
- Ertzaintzak EBA (Etxekoen eta emakumeen Babesa) proiektuan aurrera egiten jarraitu du eta Ertzaintzak eta udaltzaingoek EI/EG espediente guztien kudeaketa partekatze sistemak digital bat sustatu du. Sistema hori 2021eko bigarren seihilekoan egongo da martxan.

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

- Genero indarkeriari buruzko informazio hitzaldiak herritarrentzat eta kolektibo profesionalentzat.
- Ertzaintzaren ikastaroak: EI/EG prebentzio psikohezitzailea, Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko online prestakuntza (JABETUZ).

5. ARDATZA
KOMUNIKAZIOA

- Informazioa eskaintzea eta zabaltzea arriskua prebenitzeko eta azaltzeko, hura agertzeko aukerak minimizatzeko helburuz.
- Sail Arteko Talde Teknikoaren (SATT) bileratara joatea eta Ertzaintzaren barruan haren dinamika bultzatzea.

ERREPIDEKO
ISTRIPU TASA1. ARDATZA
HERRITARRENTZAKO
ZERBITZUA

- Europa Barneko Errepideen Sarearen aurrez aurreko bilera batera eta sareko 7 bileratara joan gara.
- Mugikortasun proiektu pilotu bat garatu da Hernaniko ertzain etxean eta Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Unitatean, herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.
- UPV/EHUko Psikologia Fakultateak "GIDADI 2020" azterlana egin du Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarentzat, 65 urtetik gorako pertsonen bide segurtasuneko beharren pertzepzioa aztertzeke.

2. ARDATZA
PLANGINTZA

- Bide Segurtasuneko 2021-2025 Plan Estrategikoa egiten hasi da. Plan horrek Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarriko Helburuak hartzen ditu bere gain.
- Trafiko Zuzendaritzak Europako Arku Atlantikoa eta EU-EIP (European ITS Platform) proiektuetan parte hartu du, ITS (Intelligent Transport Systems) sistemen eta zerbitzuen ezarpena bultzatzeko.
- Garraio berezien ibilbideak kalkulatzeko eta kontrolatzeko tresna bat garatzen ari da.
- GeoTraffic aplikazioa hobetzen jarraitu da. Aplikazioak zirkulazioaren egoera monitorizatzen du eta txosten historikoak egiten ditu GPS datuetan eta intentsitateak kalkulatzeko tresnan oinarrituta.
- Road Safety tresna garatu da, istripuen kausak eta faktoreak aztertzeke.

3. ARDATZA
KOORDINAZIOA

- Beste erakunde batzuekiko lankidetzak, trafikoa eta errepideak monitorizatzeko.
- Udaltzaingoen bide segurtasuneko kanpainak, Trafiko Zuzendaritzarekin koordinatuta.
- Hainbat sektoretako 43 enpresa atxiki zaizkio 2017an abian jarritako Innovabide Sareari, "In itinere" istripuetan hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua murrizteko.

4. ARDATZA
PRESTAKUNTZA

- Orientabide estrategikoen ildotik, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta kontzientziazioaren esparruan lan egiten jarraitzen da. Helburua mugikortasun segururako hezkuntza sustatzea eta ematea da, bai eta, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzen bidez, bide ohitura eta jokabide seguru eta arduratsuak bultzatzea ere Euskadiko ikastetxeetako eta ikastetxe ez formaletako gidari aurreko gazteen artean, eta komunikazio kanpainak eta harrapaketak prebenitzeko programak sustatzea eta bultzatzea kolektibo zaurgarrien artean.
- Gizarteko eta hezkuntzako hainbat agenteren eguneroko bizitzan mugikortasun segurua sustatzea: udaltzaingoak, bide hezkuntzako begiraleak, Ertzaintzako boluntarioak. Mugikortasun seguruko hezkuntza ikastaroak unibertsitatez kanpoko geletan eta prestatzaileei.
- Bide prestakuntza maila guztietan, mugikortasun seguruan zentratuta.
- Ertzaintzaren Trafiko ikastaroak.

